



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko abenduaren 9an

25 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Lege proposamena. Emendakinak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilgailuen gidariak eta txirindulariak sentibilizatzeko kanpainak egin ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio Diputatuen Kongresuan 35 orduko lan-astearen alde tramitatzen ari den herri ekimenari. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du militarrek legezketasunaren aurka, hau da, II. Errepublikako instituzioen aurka eginiko matxinada militarra. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Museoei buruzko Plan orokor bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da BOEen deskalifikazio librea galarazteko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuari buruzko Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da garraioari buruzko eskualde-plan bat egin dezan. Atzera bidalitako mozioa (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Valtierra-Cadreitako osasun eskualde oinarritzkoaren pediatria zerbitzuari buruzko galdera, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak egin (8. or.).

- Lan arriskuei aurrea hartzeko araudia betetzeari buruzko galdera, Isabel Delgado López foru parlamentario andreak egina (9. or.).
- Lan Osasuneko 13. programako zenbait aurrekontu-sail betetzeari buruzko galdera, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak egina (9. or.).
- Osasun Irakaskuntza, Ikerkuntza eta Garapeneko 12. programako zenbait aurrekontu-sail betetzeari buruzko galdera, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak egina (10. or.).
- Lan arriskuei aurrea hartzeko ezartze-Planean aurreikusitako prestakuntza ikastaroei buruzko galdera, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak egina (10. or.).
- Ondasun higikorren multzo bat zaharberritzeari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak egina (11. or.).
- Ondasun higikorrak kontserbatzeko eta zaharberritzeko lanak esleitzeari buruzko, uztailaren 13ko 253/99 Foru Aginduari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak egina (12. or.).

G SAILA:**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Emakumezkoek jasaten duten indarkeriaren aurkako aldarrikapen politikoa. Osoko Bilkurak berretsia (13. or.).
- Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako Hezkuntza eta Kultura Batzordeko bi ordezkari izendatzea (14. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda (14. or.).

B Saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1999ko

urriaren 25eko 13 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Lege proposamena

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Parlamentuak, 1999ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1999ko urriaren 25eko 13 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Lege proposamena ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubide Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik epe bat irekiko da, **2000ko otsailaren 21eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.”

Iruñean, 1999ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E SAILA:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko azaroaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko Erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan

"Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea, aldez aurretik funtzionarioen ordezkariekin adosturik, sindikatuen bidez, Gobernu Zentralarekin hitzarmen bat egin dezan, urtebeteko epean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legeko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez. Hitzarmen hori dela medio, Nafarroako Foru Administrazioako eta Toki Administrazioetako funtzionarioak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartuko dira. MUNPALi atxikitako toki administrazioako funtzionarioen sarreran izan ziren baldintza eta bide berak edo hobeak izan beharko dira oraingo sartzeko honetan ere."

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilgailuen gidariak eta txirrindulariak sentsibilizatzeko kanpainak egin ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko azaroaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko Erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilgailuen gidariak eta txirrindulariak sentsibilizatzeko kanpainak egin ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilgailuen gidariak eta txirrindulariak sentsibilizatzeko kanpainak egin ditzan

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen egin ditzan motoredun ibilgailuetako gidariak eta txirrindulariak sentsibilizatzeko kanpainak, zirkulazio arauak errespetatzen eta txirrindulariek babes-kaskoak erabil ditzaten."

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesak ematen dio Diputatuen Kongresuan 35 orduko lan-astearen alde tramitatzen ari den herri ekimenari

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko azaroaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko Erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesak ematen dio Diputatuen Kongresuan 35 orduko lan-astearen alde tramitatzen ari den herri ekimenari".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesak ematen dio Diputatuen Kongresuan 35 orduko lan-astearen alde tramitatzen ari den herri ekimenari

"1.- Nafarroako Parlamentuak, langabezi-tasa handia kontuan hartuta eta aberastasunaren partiketa zuzenagoa helburu duela, azaltzen du Diputatuen Kongresuan tramitatzen ari den herri ekimeneko lege proposamenaren aldeko dela; hain zuzen, 35 orduko lan-astea eta aparteko ordu egiturazkoak debekatzeari buruzko lege proposamena.

2.- Erabaki hau hurrengo hauei igorriko zaie:

- Diputatuen Kongresuko lehendakariari.
- Senatuko lehendakariari.
- Diputatuen Kongresuko talde parlamentarioei.
- Senatuko talde parlamentarioei."

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du militarrek legezketasunaren aurka, hau da, II. Errepublikako instituzioen aurka eginiko matxinada militarra

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko azaroaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko Erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du militarrek legezketasunaren aurka, hau da, II. Errepublikako instituzioen aurka eginiko matxinada militarra".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du militarrek legezketasunaren aurka, hau da, II. Errepublikako instituzioen aurka eginiko matxinada militarra

"Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du militarrek legezketasunaren aurka, hau da, II. Errepublikako instituzioen aurka eginiko matxinada faxista.

Matxinada militar hark sortutako liskarraren zentzugabekeriak benetan atsekabetzen du Nafarroako Parlamentua, eta liskar horrek hauxe erakutsi behar digu: bakearen segurtasuna izanen badugu, beharrezko dugula demokraziaren legeak errespetatzea eta, liskarraren aurrean, tolerantzia eta elkarbizketa oinarri dituen elkarbizitza errespetatzea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua ondoko hauek egin ditzan premiatzen du:

- Diasporako nafarrei buruzko azterlan bat; material dokumentalak berreskuratu, eta fondo bat osatzeko balio izan dezatela.
- Erbesteratuen eta horien oinordekoen esku-bideak berreskuratzeko behar diren ekimenak, betiere egungo marko juridikoaren barranean.
- Laguntza-fondo bat eratu erbesteratuentzako edo horien oinordekoentzako; horrela, beharrezko suertatuz gero, laguntza izanen dute.
- Erbesteratzea gogoratzeko ekitaldi-programa bat aurrera eraman.

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Museoei buruzko Plan orokor bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko azaroaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko Erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Museoei buruzko Plan orokor bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Museoei buruzko Plan orokor bat egin dezan

"Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea, Museoei buruzko Plan orokor bat egin dezan, urte askotarako egin ere. Hiru helburu izanen ditu planak: Nafarroako Museoak Estatuko museoaren sarean duen presentzia indartzea, obrak kontserbatu eta erostekak dakartzen behar ekonomikoak modu egokian aurreikustea, eta, oro har, Nafarroako kulturaren behar berriei erantzutea. Kultura eta zientzia lotuko dira, eta museo batzuen sorrera prestatuko da: arte garaikideko museo bat, argazkiaren museo bat eta natur zientzien arloko museo bat."

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da BOEen deskalifikazio librea galarazteko neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

«Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da BOEen deskalifikazio librea galarazteko neurriak har ditzan".

Biltzarrak, 1999ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 1999ko urriaren 29ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuari buruzko Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkez dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuari buruzko Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkez dezan".

Biltzarrak, 1999ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 1999ko azaroaren 15eko 19 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da garraioari buruzko eskualde-plan bat egin dezan

ATZERA BIDLITAKO MOZIOA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da garraioari buruzko eskualde-plan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 17an egindako bilkuran, «Socialistas

del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 1999ko azaroaren 15eko 19 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Valtierra-Cadreitako osasun eskualde oinarrizkoaren pediatria zerbitzuari buruzko galdera*ELENA TORRES MIRANDA FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak Valtierra-Cadreitako osasun eskualde oinarrizkoaren pediatria zerbitzuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Elena Torres Mirandak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Valtierra-Cadreitako eskualde oinarrizkoaren Osasun Kontseilua 1998ko otsailaren 18an bildu zen, ostegunez, eta erabaki zuen eskualde honetako Pediatria Zerbitzua handitzea aztertu behar zela, dauden arazoek bere hartan baitiraute; hots, haur kopurua, eskola-berrikuspenak, programaturiko kontsultak, 14 urte bitarteko pediatria-laguntza, jaiotako haur guztien historia klinikoak, eta pediatria bakar batek eskain dezakeen laguntza gainditzea.

Tuterako osasun barrutiko oinarrizko osasun laguntzaren zuzendariak zerbitzuaren berri eman eta konpromisoa hartu zuen, aztertu egingen dutela irtenbide baten bila.

Ondoren, telefono bidez, inolako ebazpen idatzirik eman gabe, lanaldi-erdiko pediatria bat ezarri zen. Zerbitzu horrek hilabete gutxi iraun zituen, ezen kontraturiko pertsonak kontratua desegin egin baitzuen. Gaur arte zerbitzu hori ez du beste inork bete.

Zergatik ez da ordezkapenik izan, osasun eskualde oinarrizko honetako lanpostu hutsean?

Osasun Departamentuaren asmoen arabera, zer epe igaroko da mediku bat kontratatu eta emateko dagoen zerbitzu hori eman bitarte?

Pentsatu al du Osasun Departamentuak lanpostu hori behin betikoz sortzea? Baiezkoan, lanpostua lanaldi osokoa ala lanaldi-erdikoa izanen litzateke?

Egun, egoera hastapenekoa bera da, eta gurasoen elkarrekin, ukitutako udalak eta osasun eskualde oinarrizko honetako oinarrizko osasun laguntzaren ekipoa kezkatuta daude arazoa berragertzen ari delako eta irtenbiderik ez zaiolako eman.

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Foru parlamentarioa: Elena Torres Miranda

Lan arriskuei aurrea hartzeko araudia betetzeari buruzko galdera

ISABEL DELGADO LOPEZ FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Isabel Delgado López foru parlamentario andreak lan arriskuei aurrea hartzeko araudia betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Isabel Delgado Lópezek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoak

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Osasun Kontseilariak eta Industri Kontseilariak batera egin zuten agerraldia lan-istripuen kopuruaren arazoaz aritzeko; Lan Arriskuei Aurre Hartzeko Ezartze Planarekin zerikusia zuten zenbait gai ez ziren agertu agerraldi hartan; hona hemen:

– Zergatik ez dituzte enpresek betetzen lan arriskuei aurre hartzeari buruzko arauak?

– Zenbat enpresak izan dituzte zehapenak hori dela eta?

– Zer sektore edo sektoretakoak dira zehapenak jaso dituzten industria horiek?

– Zer zenbateko izan dute zehapenak?

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Foru parlamentarioa: Isabel Delgado López

Lan Osasuneko 13. programako zenbait aurrekontu-sail betetzeari buruzko galdera

ELENA TORRES MIRANDA FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak Lan Osasuneko 13. programako zenbait aurrekontu-sail betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Elena Torres Mirandak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxiki-

tako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaion zenbait kontusaili buruz; hain zuzen ere, Lan Osasuna izeneko 13. programako 17320, 17330, 17340 kontusaili buruz:

– Kontusail bakoitzeko betetze-egoera.

– Aipatutako kontusail bakoitzarekin eginiko jarduerak, eta horietako bakoitzari esleitutako zenbatekoa.

– Diru-kopururik konprometitu al da?

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Foru parlamentarioa: Elena Torres Miranda

Osasun Irakaskuntza, Ikerkuntza eta Garapeneko 12. programako zenbait aurrekontu-sail betetzeari buruzko galdera

ELENA TORRES MIRANDA FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak Osasun Irakaskuntza, Ikerkuntza eta Garapeneko 12. programako zenbait aurrekontu-sail betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Elena Torres Mirandak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxiki-

tako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaion zenbait kontusaili buruz; hain zuzen ere, Osasun Irakaskuntza, Ikerkuntza eta Garapena izeneko 12. programako 95059-5 eta 17050-6 kontusaili buruz:

- Kontusail bakoitzeko betetze-egoera.
- Kontusail bakoitzari esleitutako diru kopuru bakoitza zertarako erabili den.
- Aipatutako diru kopuru bakoitzarekin eginiko jarduerak.

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Foru parlamentarioa: Elena Torres Miranda

Lan arriskuei aurrea hartzeko ezartze-Planean aurreikusitako prestakuntza ikastaroei buruzko galdera

ELENA TORRES MIRANDA FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Elena Torres Miranda foru parlamentario andreak lan arriskuei aurrea hartzeko ezartze-Planean aurreikusitako prestakuntza ikastaroei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Elena Torres Mirandak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxiki-tako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Errege-

lamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaion Lan Arriskuei Aurre Hartzeko Ezartze Planari buruz:

Legeak, bai enpresentzako eta baita langileen-tzako ere, lan-arriskuen arloko prestakuntza izateko tresnak ezartzen ditu; hain zuzen ere, hobeki ezagutzeko enpresetan zer arrisku izaten diren, horiei nola aurre hartu eta nola saihestu.

- Zenbat enpresak erabili du prestakuntza ikastaroak egiteko aukera?
- Zer sektoretakoak dira enpresa horiek?
- Zenbat langile joan dira ikastaro horietara?

Iruñean, 1999ko azaroaren 25ean

Foru parlamentarioa: Elena Torres Miranda

Ondasun higikorren multzo bat zaharberritzeari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondasun higikorren multzo bat zaharberritzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

1998ko abenduaren 15ean, Artelan Restauración SL enpresa –Artaxoako erretaula zaharberritzeko adjudikazioa hartu zuena– Iruñeko katedralean agertu zen, aipatutako erretaula hartu eta Nafarroako Museora eramatearren, museo horretan egin behar baita zaharberritzea.

Dena dela, Artzapezpikutzak ez zuen utzi eramaten, esanez Nafarroako Gobernuak 1.798.000 pezeta eman behar zizkiola CCR enpresari erretaula eduki eta manipulatzeko; artzapezpikutzak da CCR enpresaren jabea, eta bulegoak katedralean ditu.

Ondare Historikoaren Zerbitzuaren buruak idazki bat bidali zion Hezkuntza eta Kultura Departamentuko zuzendari nagusiari; idazkia 1998ko abenduaren 17koa zen eta, hitzez hitz, ondokoa baieztatzen zuen: "Ondare Historikoaren Zerbitzuak ezin du baldintza hori onartu, txantaje itxura baitu eta adjudikazioa CCR enpresari ez ematearen ondoriozko amorrazioa baitirudi. Gogorazi nahi nuke Vianako Printzea Erakunde ari dela ordaintzen, osorik, Artaxoako San Saturnino elizaren zaharberritzea, eta kostua handia dela; halaber, azaldu beharrekoa da Artaxoako erretaula zaharberritzeko zenbait bide propo-

satu zirela, baina Artzapezpikutzak ez zituela onartu; ondorioz Gobernuak, gastuaren % 100 bere gain hartu baitu, kontratazioa egin zuen".

Egoera honetan, Artaxoako erretaula zaharberritzeko Artelanekin zuen kontratua deuseztu egin zuen Nafarroako Gobernuak; konpentsazio moduan, Nagoreko eliza nagusiko ondasun higikorren multzo baten zaharberritzea eman zion, prozedura negoziatu eta publizitaterik gabearen bidez.

Kontratuei buruzko Foru Legeko 80. artikulua arautzen du zein kasutan den bidezkoa prozedura negoziatu eta publizitaterik gabea baliatzea; baina Nagoreko eliza nagusiko ondasun higikorren multzoa zaharberritzeko adjudikazioa ez da kasu horietan sartzen.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi dugu:

1.- Prozedura negoziatu eta publizitaterik gabea baliatzeko arauan aipatzen diren kasuetatik, zein izan du kontuan Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Nagoreko eliza nagusiko ondasun higikorren multzoa zaharberritzeko adjudikazioan?

Zer informe juridiko egin dira?

Zer argudio juridikok bermatu dute aipatutako prozedura?

2.- Artzapezpikutzaren jarrera oztopatzailea ikusirik, zergatik ez zuen Departamentuak Artelanekin zuen kontratua deuseztu eta kalte-ordaina eman, eta, ondoren, Artzapezpikutzak auzitara eman, sortutako kalte-galerak direla eta?

3.- Non dago orain Artaxoako San Saturnino elizako erretaula? Oraindik ere Artzapezpikutzak du bere esku eta jarraitzen du zaharberritzea galarazten?

Horren zaharberritzea adjudikatzeke, beste lehiaketarik egin da edo egiteko asmorik badago?

Egin baldin bada, zer enpresa izan da adjudikazio-hartzailea eta zein izan da zenbatekoa?

Iruñean, 1999ko azaroaren 26an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Ondasun higikorrek kontserbatzeko eta zaharberritzeko lanak esleitzeari buruzko, uztailaren 13ko 253/99 Foru Aginduari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondasun higikorrek kontserbatzeko eta zaharberritzeko lanak esleitzeari buruzko, uztailaren 13ko 253/99 Foru Aginduari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Uztailaren 13ko 253/1999 Foru Aginduak baldintza bat ezarri du ondasun higikorrek kontserbatzeko eta zaharberritzeko lanak esleitzeko: lehia-keetan parte hartzen duten enpresetako kide guztiek izan behar dute arte ederretako titulazio akademikoa (adarra: zaharberritzea).

Baina tituludunen lehen promozioa 1991koa da, eta, beraz, badira lanbidean urte askotako esperientzia duten zaharberritzaileak, eskatutako titulazio akademikoa ez dutenak.

Horregatik, ondokoa jakin nahi dugu:

Egun indarrean dagoen legediaren arabera, lanbidean urte askotako esperientzia duten zaharberritzaileek ez dute aukerarik zaharberritze lanen adjudikazioan; horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak ba al du zaharberritzaile horiei tituluaren pareko gaitasuna aitortzeko asmorik?

Iruñean, 1999ko azaroaren 26an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Emakumezkoek jasaten duten indarkeriaren aurkako aldarrikapen politikoa

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko azaroaren 24 egindako Osoko Bilkuran, "emakumezkoek jasaten duten indarkeriaren aurkako aldarrikapen politikoa" berretsi zuen.

Iruñean, 1999ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Emakumezkoek jasaten duten indarkeriaren aurkako aldarrikapen politikoa

"Nafarroako Parlamentuak biziki gaitzesten ditu emakumeek nozitzen dituzten tratu txarrak, eta elkertasuna agertu nahi du, indarkeria mota honen biktimekiko eta haien senideekiko.

Nafarroako Parlamentuak berriro egin nahi du –gainerako administrazio publikoekin, Estatuko segurtasun indarrekin eta udaltzaingoarekin koordinatuz– etxeko indarkeria errotik mozteko hartu zuen konpromisoa, eta etxean halako indarkeriazko egoera jasaten duten pertsona –berezi, emakume– guztiei adorea eman nahi die, pertsonaren oinarrizko eskubideen kontrako delitu hori sala dezaten.

Ohartzen gara emakumeen aurkako indarkeria oztopo bat dela berdintasun, garapen eta bakezko helburuetara iristeko, eta indarkeria horrek urratu egiten dituela giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak.

Badakigu giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak gizaki guztion ondare besterenezina direla, eta ondare hori bultzatu eta babestea gobernu orearen lehentasunezko ardura dela.

Ondorioz, Pekingo Ekintza Plataformako neurriak gauzatzeko konpromisoa berriro egiten dugu, eta ondoko konpromiso hauek hartzen:

Behar diren neurriak hartuko ditugu, bereziki hezkuntzan, emakumezkoen eta gizonezkoen gizarte- eta kultura-jokaeren ereduak aldatzeko,

eta aurreiritzi zein egintza ohikoak eta bestelakoak deusezteko, baldin eta sexu bataren edo bestearen nagusitasunean zein mendekotasunean eta emakumezkoen eta gizonezkoen erantsitako estereotipoetan oinarrituta badaude.

Indarkeriaren biktima diren emakumeen erraztu egiten diegu sistema judizialera jotzea, legeetan xedatutakoaren arabera, eta jasan dituzten kalte-galerak konpontzeko irtenbide zuzen eta eraginkorrek bilatzen lagunduko dugu, eta bide hauetaz baliatuz ordaina jasotzeko duten eskubidearen berri emanen diegu.

Harrera zentroak eta laguntza zerbitzuak ezarri eta behar diren baliabideez hornituko ditugu, indarkeriaren biktima diren neskei eta emakumeen laguntzeko; osasun- eta psikologi zerbitzuak, eta aholkuak emateko; halaber, behar dutenean, abokatuen laguntza emateko, dohainik edo oso merke; eta, gainera, behar duten orientazioa eskaintzeko, bizibide baten bilaketan laguntzearen.

Laguntza emanen diegu emakumeen erakunde eta gobernu kanpoko erakundeen ekimenei, baldin eta haien xedea bada emakumeen aurkako bortxakeriaren inguruko kontzientzia suspertzea eta bortxakeria hori erauzten laguntzea.

Indarkeriaren biktima diren emakumeek eta familiek eskura duten laguntzari buruzko informazioa hedatuko dugu.

Onartu, bermatu eta bultzatu egiten dugu tar-teko erakundeek duten oinarrizko eginkizuna; hots, besteak beste, ondoko erakundeok dutena: emakumearentzako informazio zentroek, oinarrizko osasun laguntzako zentroek, famili planifikazio-koek, etorkinen familientzako zentroek, eta tratu txarrei buruzko informazioa eta hezkuntza eskaintzen duten antzeko beste batzuek.

Orobat, Nafarroako Parlamentuak nahi du herritar guztiek parte har dezatela egiten diren manifestazio eta konzentrazio orotan, alegia, emakumeek nozitzen duten indarkeria salatzen egiten direnetan".

Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako Hezkuntza eta Kultura Batzordeko bi ordezkari izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1999ko azaroaren 23an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen:

“Ondoko pertsonak izendatzea Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako Hezkuntza eta Kultura Batzordeko

ordezkariak:

Pedro Eza Goyeneche jauna

Juan Antonio Andión Gastón jauna”

Iruñean, 1999ko azaroaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa

Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdirako eskabideak aurkezteko epea bukatu egin denez (1999ko urriaren 29ko 14 zk.ko NPAOn eta 1999ko azaroaren 10eko 141 zk.ko NAOOn argitaratu zen deialdia), ondoren argitaratzen da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, aipatu deialdiaren 4.1. oinarriak xedatuaren arabera.

Onartuak:

Inor ez.

Bazertuak:

Fernández de Quincoces Martínez de Virgala, Mikel, 2. oinarriko d) letrak eskatzen duena ez betetzeagatik.

Iruñean, 1999ko abenduaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 175 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--